


Txostena

Informe



EAeko Udal Entitateen Kontuak

Cuentas de las Entidades Locales de la CAPV

2015





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK	5
AZERTATUTAKO RATIOAK	5
I. SARRERA.....	7
II. ONDORIOAK	10
II.1 UDALEN KONTUAK	10
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK	13
III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK	16
III.1 UDAL ADIERAZLEAK 2015/12/31-N.....	16
III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK 2015/12/31-N.....	30

TXERTATUTAKO LIKIDAZIOAK

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

ERANSKINAK	37
A.1 KONTUAK AUDITATUAK DITUZTEN ERAKUNDEAK	37
A.2 LANGILERIA GASTUAK	38
A.3 KONTU OROKORREN AZTERKETAN HUTSAK.....	39

EKONOMIA ETA FINANTZA INFORMAZIOA

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

1. ERAKUNDE AUTONOMOAK, ENTITATE PUBLIKOAK, SOZIETATE PUBLIKOAK ETA FUNDazioak	
2. AURREKONTU LIKIDAZIOEN LABURPENA ETA PLANTILLA	
3. FINANTZA RATIOAK	
4. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA	

ALEGAZIOAK	51
------------------	----

ABREVIATURAS Y DEFINICIONES.....	53
RATIOS ANALIZADOS.....	53
III. INTRODUCCIÓN.....	55
IV. CONCLUSIONES	58
II.1 CUENTAS MUNICIPALES	58
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES.....	61
III. RATIOS E INDICADORES	64
III.1 INDICADORES MUNICIPALES A 31/12/2015	64
III.2 INDICADORES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES A 31/12/2015	78



LIQUIDACIONES AGREGADAS

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

ANEXOS.....	85
A.1 ENTIDADES CON CUENTAS AUDITADAS	85
A.2 GASTOS DE PERSONAL.....	86
A.3 DEFICIENCIAS DEL ANÁLISIS DE LAS CUENTAS GENERALES	87

INFORMACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

1. OO.AA., ENTIDADES PÚBLICAS, SOCIEDADES PÚBLICAS
Y FUNDACIONES
2. RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES PRESUPUESTARIAS Y PLANTILLA
3. RATIOS FINANCIEROS
4. EVOLUCIÓN PRINCIPALES MAGNITUDES

ALEGACIONES	99
-------------------	----

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 26a
Vitoria-Gasteiz, 26 de octubre de 2017



LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK

10/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LH	Lurralde historikoa

AZERTUTAKO RATIOAK

Berehalako likidezia	Funts likidoak / Ordaintzeke dauden obligazioak.
Likidezia	Funts likidoak / Hartzekodunak epe laburrera.
Epe laburreko kaudimena	Funts likidoak + kobratzeko dauden eskubideak / ordaintzeko dauden obligazioak.
Zorra amortizatzeko gutxieneko epea	Erabilitako zorra / Emaitza arrunta.
Diru-sarrera errepikarien bilakaera	[N ekitaldiaren ustiapan sarrerak + N ekitaldiaren finantza sarrerak / N-1 ekitaldiaren ustiapan sarrerak + N-1 ekitaldiaren finantza sarrerak] -1.
Egiturazko gastuen bilakaera	[N ekitaldiaren ustiapan gastuak + N ekitaldiaren finantza gastuak / N-1 ekitaldiaren ustiapan gastuak + N-1 ekitaldiaren finantza gastuak] -1.
Kobrantzak gauzatzea	Diru-bilketa garbia / Aitortutako eskubide garbiak
Kobrantzarako batez besteko aldia	Kobratzeko dauden eskubideak (1etik 3rako kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.) *365.
Autonomia fiskala	Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.) / Guztira aitortutako eskubide garbiak.
Transf. eta diru-laguntza arruntekiko mendekotasuna.	Transferentzia eta diru-lag. arruntak / Sarrera arruntak (1etik 5erako kap.) * 100.
Transferentzia arruntak	
Ordainketak gauzatzea	Ordainketa likidoak / Aitortutako obligazio garbiak.
Ordainketarako batez besteko aldia	Ordaintzeko dauden obligazioak (2. eta 6. kap.) / Aitortutako obligazio garbiak (2. eta 6. kap.) * 365.



Langile gastuen indizea	Langileria gastuak / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Inbertsio ahalegina	Aitortutako obligazio garbiak (6. eta 7. kap.) / Aitortutako obligazio garbiak.
Ekitaldiko finantza zama	Aitortutako obligazio garbiak (6. eta 7. kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki gordinaren indizea	Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.) - Aitortutako obligazio garbiak (1etik 4rako kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki garbiaren indizea	Aurrezki gordina - finantza zama (gastuen 3. eta 9. kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Sarrera arruntek eragindako geldikina	GODG – Aplikatzeko dauden ordainketak / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.).
Biztanleko superabita edo defizita	Doitutako aurrekontu emaitza / biztanle kopurua.
Aurrekontuaren ekarpena DGari	Doitutako aurrekontuaren emaitza /GODG.
Zalantzazko kobragarritasuna zordunen indizea	Zalantzazko kobragar. saldoak / kobratzeko dauden zordunak * 100.
Biztanleko inbertsioa	Obligazio aitortuak, gastuen 6. eta 7. kap. / Biztanle kopurua.
Jardueraren sarrerak	Eskubide aitortuak, sarreren 1etik 3rako kapituluak eta sarreren 5. kapitula Partzuergoentzat.
Ekitaldi itxietan kobrantzak gauzatzea	Kobrantzak / Eskubideen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta baliogabetzeak)
Ekitaldi itxietan ordainketak gauzatzea	Ordainketak / Obligazioen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta baliogabetzeak)



I. SARRERA

Epaitegi honek hezurmamitu duen Lanerako Programa betez, EAEko udalen eta udalaz gaindiko entitateen 2015eko kontu orokorrak aztertu dira, ikuspegi formala eta kualitatiboa oinarri hartuta.

Toki Entitateentzat aurrekontu gaietan erregulazio orokor oinarrizkoa Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak osatzenean dute.

EAren esparruan Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusiek ebatzitako indarreko arautegia 3/2004 FA, 10/2003 FA eta 21/2003 FA da. Foru Dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko foru arau hauek lurralte historiko bakoitzean eta horietan toki entitateen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra jaso dira. Hiru Lurraldeetako udalen aurrekontu likidazioari eta Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa, Aurrekontuko Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Aurreko urteetan egin dugun legez, txosten-diagnostiko hau EAEn 2015eko ekitaldian zeuden 251 udal administrazioei (ez ditu besarkatzen erakunde autonomoak, sozietae publikoak, entitate publikoak eta fundazioak) eta udalaz gaindiko 64 entitateei soil-soilik dagokie. Hona hemen horien xehapena:

- 19 partzuergo
- 34 mankomunitate
- 6 kuadrilla
- 5 partzoneria

EAren udal multzoaren kontuak eta Lurralde Historikoaren araberako banaketa, eta udalaz gaindiko entitate multzoaren kontuak eta emandako zerbitzu motaren araberako banaketa likidazioak txertatzetik eskuratu dira, ia gehienak fiskalizatu gabeak, 250 udalek (% 99,60) eta udalaz gaindiko 59 entitatek iritsarazi dizkigutenak (% 92,19).

Ikuskatutako kontuak aurkezta dituzten entitateak 25 udal eta udalaz gaindiko 9 entitate dira eta HKEEK, gainera, 7 udal eta udalaz gaindiko entitate 1 fiskalizatu ditu (ikus A.1).



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aztertutako udal eta udalaz gaindiko entitateek antolamenduan 95 erakunde autonomo, 122 udal sozietate publiko eta 4 empresa-entitate publiko besarkatzen dituzte, ondotik erakutsiko dugun laburpenaren arabera. Xehapena ondoko lotunean dago jasoa:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

ERAKUNDE KOPURUA			
	ERAKUNDE AUTÓNOMOAK	SOZIETATE PUBLIKOAK	ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK
Udaletakoak:			
ARABA	8	16	-
BIZKAIA.....	48	44	2
GIPUZKOA.....	37	52	2
Udalaz gaindikoak:			
Partzuergoak	-	4	-
Mankomunitateak	2	6	-
Kuadrillak	-	-	-
Partzoneriak	-	-	-
EAE GUZTIRA	95	122	4

Gainera, 25 fundaziotan parte hartzea baiezttatu dute, 24 udalek eta udalaz gaindiko entitate batek.

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.189.135eko biztanleria hartu da abiarazten, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 250 udalaren 2015eko urtarriaren 1ean zeuden biztanleak, alegia.

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BIZT. KOP. 15/1
> 50.000	6	1.015.709
20.001 - 50.000	12	387.283
10.001 - 20.000	24	355.157
5.001 - 10.000	28	201.669
1.001- 5.000	81	183.418
< 1.001	99	45.899
EAE GUZTIRA	250	2.189.135
ARABA	51	323.648
BIZKAIA	112	1.148.775
GIPUZKOA.....	87	716.712



Zerbitzua ematen zaion biztanleria, zerbitzu motaren arabera, honakoa da kontuak prozesatu diren 59 entitateetan:

JARDUERA	ENTITATE KOP.	ARTATURIKO BIZTANLERIA
1. Ura eta saneamendua	13	1.889.050
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	9	377.138
3. Hiriko hondakin solidoa	9	1.548.070
4. Gizarte ongizatea	9	248.010
5. Arabako Kuadrilla	6	79.730
6. Sustapena eta irakaskuntza, euskara eta lanerako prest.	5	274.747
7. Partzoneriak eta baso ustiapena	5	63.076
8. Suteak itzaltzea	2	60.444
9. Garraioak	1	752.403

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

- 2015eko ekitaldiko Kontu Orokoren analisia. Azterlan hau oinarri izan da toki entitateek, informatzeko betebeharriari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.
- Udal eta udalaz gaindiko entitate guztien kontu orokoren atal diren egoera balantzeen, galera eta irabazien kontuen eta aurrekontuaren likidazioaren azterketa berariazkoa; ezargarria zaien arautegian eskatutako informazio osoa barne hartzen dutela eta agiri guztiak elkarren artean koherenteak direla egiaztatu da.
- Udal eta udalaz gaindiko entitateen egoera balantzeen, galera eta irabazien kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa, ekonomia-finantza izaerako adierazleak eskuratzeko.

Udalek eta udalaz gaindiko entitateek igorritako agirien edukia aztertzean hiru akats mota bereizi ditugu:

- Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta kontu orokorra onesteko epeetan eragina dutenak.
- Kontu orokorra eragiten dutenak, bai eduki formalari dagokionez, bai informazioaren eduki kualitatiboari dagokionez ere.
- Aurreko ekitaldietako Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin negatiboen finantzaketa moldeari erreferentzia egiten dietenak.

Txostenaren datu ekonomikoak milako euroetan daude emanak eta dezimalik ez erakusteko biribildu dira; datuek beti balio zehatz bakoitzaren biribiltzea erakusten dute eta ez biribildutako datuen batuketa.



II. ONDORIOAK

II.1 UDALEN KONTUAK

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauek agintzen dute Toki Entitateek HKEERi Kontu Orokorra aurkeztuko diotela, beren berariazko arautegiak agintzen duen terminoetan behar bezala onetsia; berebat, HKEERen sorrera legearen 9.5 artikuluak agintzen du nahitaezkoa dela Epaitegi honi Toki Entitateen Aurrekontuen likidazioari dagokion dokumentazioa igortzea, egin edo onesten denetik aurrera hilabeteko epean. Gaintzako Udalak ez du obligazio hori bete (ikus A.3.1).

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAERen 250 udalek igorritako datuetatik eskuratu dira. Datu horien arabera, EAERen % 99,60k aitortzen dizkio kontuak Epaitegi honi.

A.3.1 eranskinean banaka zehazten dira aztertutako 250 udaletan aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 18,40 egiten duten 46 udaletan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 13, Arabako Lurralde Historikoan daude; 11, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 22, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak

- 112 udalek aurrekontuak 2015eko lehenengo seihibilekoan onetsi zituzten eta 10ek, berriz, ekitaldiaren bigarren seihibilekoan.

Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikuluak agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun 250 udaletatik % 40,40k bakarrik onetsi ditu 2015eko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2015/01/1 baino lehenago.....	101	% 40,40
2015eko 1. hiruhilekoa.....	92	% 36,80
2015eko 2. hiruhilekoa.....	20	% 8,00
2015ko 2. seihibilekoa.....	10	% 4,00
Luzatutako aurrekontua.....	27	% 10,80

- 36 udaletan aurrekontuaren likidazioak indarreko arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dira.

Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikuluak hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 ezartzen du Erakundearen lehendakariak onesteko epemuga modura. 250 udalen % 85,60k 2015eko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2015eko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du; gainerako % 14,40k, berriz, aurrekontuari buruzko arautegiak finkatutako epea urratu du.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen aurrekontuen likidazioaren onespren aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2016/04/1 baino lehenago.....	214	% 85,60
2016/04/1 eta 2016/07/31 bitartean.....	35	% 14,00
2016/08/1 eta 2016/12/31 bitartean.....	1	% 0,40

- 68 udalek Kontu Orokorra arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 7 udaletan ez dago jasota Kontu Orokorra onetsi denik.

Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikuluak hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 ezartzen du Entitatearen Osoko bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. 250 udalen % 70ek Kontu Orokorra arautegiak agintzen duen epean onetsi du. Hona hemen Kontu Orokorra onesteko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2016/08/1 baino lehenago.....	175	% 70,00
2016/08/1 eta 2016/12/31 bitartean.....	61	% 24,40
2017/01/1 baino beranduago	7	% 2,80
Ez dago jasoa onartu denik.....	7	% 2,80

Kontu Orokorraren eduki formala

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

HUTSAK	UDAL KOPURUA
	2015
Ez dago balantzerik.....	1
Ez dago emaitzen konturik.....	1
Ez da finantzaketa taula barne hartu	13
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jaso	5
Ez da oroitidazkia barne hartu.....	22
Ez da Diruzaintza kontua jaso.....	1

Kontu Orokorra, Egoera Balantzeak, Galera-irabazien Kontuak, Memoriak eta aurrekontuaren likidazioak osatzen dute eta udalak egin duen kudeaketa-lana erakusten du, ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuari dagozkion alderdietan. Kontu Orokorra mimitu eta onartzeko obligazioa hiru Lurralde Historikoen Foru Arauetan dago xedatua eta hala ez egiteak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.



Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- Udaletan ezarritako ondare kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 64 udalek ez dituzte balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuko amortizazioak txertatzen; 6 udalek ez dute kaudimen-gabeziatarako zuzkidura erakusten egoera balantzko zordunen idazpuruan, nahiz diruzaintzaren geldikinaren kalkuluan barne hartzen dituzten. Balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak barne hartzen ez dituzten 64 udaletatik 57, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagozkie.
- Gainera, beste 4 udal daude, 24 hilabetetik gorako antzinatasuneko kobratzko zorrak izanik, kobragarritasun azterketarik ez dutenak eta Diruzaintza geldikinetik inongo kopururik deduzitu ez dutenak.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

UDAL KOPURUA	
2015	
AURREKONTUKO AKATSAK	
Oker kalkulatutako aurrekontu emaitza.....	4
Ez dira kalkulatzen ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak	2
Oker kalkulatutako diruzaintza geldikina	11
Ez da kalkulatzen Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako.....	5
Diruzaintza Kontuan deskoadratzeak daude	1
ONDAREKO AKATSAK:	
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin	17
Balantzean kaudimen-gabeziatarako zuzk. diruz. geldikinarena baino txikiagoa	5

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

- 15/12/31n Gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuten 18 udaletatik 10 udalek ez dute 15/12/31n hori finantzatu, lurralde historiko bakoitzaren Toki Erakundeen Aurrekontuko Foru Arautegiaren 49.4 artikulua urratuz.
- 2013ko ekitaldiaren geldikin negatiboak finantzatu dituzten 8 udalek honako modu honetan egin dute:
 - 2 udalek 2014-2015 ekitaldietan aurrekontuaren gastuko kontu-sailak murritzuta.
 - 5 udalek 2014an edo 2015ean geldikin positiboak eskuratuta, aurreko saldo negatiboa berdindu dutenak.
 - Udal batean maileguak kontratatuta.



II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

Aitzondo Zerbitzuen Mankomunitatea, Haranako Uren Partzuergoa eta Debade Udal Euskaltegiaren Mankomunitatea entitateek ez dituzte 2015eko ekitaldiari dagozkion kontuak igorri eta lurralte historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.5 artikulua urratu dute. Gainera, ezinezkoa izan da Kuartangoko Uren Partzuergoaren eta Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoaren kontuak barne hartzea (erakunde honek ez du jarduera abiarazi), indarreko legeriak agintzen duenarekiko bat datozen egiturak ez izateagatik.

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAERen udalaz gaindiko 59 entitatek igorritako datuetatik eskuratu ditugu.

A.3.2 eranskinean zehazten dira udalaz gaindiko entitate bakoitzean aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 28,81 egiten duten 17 udalaz gaindiko entitatetan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 8 Arabako Lurralde Historikoan daude; 3, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 6, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak

- 23 erakundek aurrekontuak 2015eko lehenengo seihilekoan onartu zituzten. Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikuluak agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun EAERen udalaz gaindiko 59 entitateetatik % 52,54k bakarrik onetsi ditu 2015eko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	ERAKUNDE KOPURUA	%
2015/01/1 baino lehenago.....	31	% 52,54
2015eko 1. hiruhilekoa.....	19	% 32,20
2015eko 2. hiruhilekoa.....	4	% 6,78
Luzatutako aurrekontua.....	4	% 6,78
Ebidentzia/informaziorik gabe.....	1	% 1,70

- 7 erakundek aurrekontu-likidazioa aurrekontu-arautegiak agintzen duen data baino beranduago onetsi zuten. Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikuluak hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 ezartzen du Erakundearen lehendakariak onesteko epemuga modura. Udalaz gaindiko 59 entitateen % 86,44k 2015eko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2015eko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du. Ondotik, udalaz gaindiko entitateek aurrekontuaren likidazioa zein alditan onetsi duten erakutsiko dugu:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	ERAKUNDE KOPURUA	%
2016/04/1 baino lehenago.....	51	% 86,44
2016/04/1 eta 2016/07/31 bitartean.....	6	% 10,16
2016/08/1 eta 2016/12/31 bitartean.....	1	% 1,70
Ebidentzia/informaziorik gabe.....	1	% 1,70



- 13 entitatetan Kontu Orokorra aurrekontu-arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi zen eta 8 entitatetan ez dago erasota onartu dutenik. Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikuluak hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 ezartzen du Entitatearen Osoko bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. Udalaz gaindiko 38 entitatek baizik ez dute Kontu Orokorra indarreko aurrekontu-arautegiak emandako epean onetsi; horiek udal guztien % 64,41 egiten dute. Onespen aldien arabera sailkatutako erakunde kopurua honakoa da:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	ERAKUNDE KOPURUA	%
2016/08/1 baino lehenago.....	38	% 64,41
2016/08/1 eta 2016/12/31 bitartean.....	12	% 20,33
2017/01/1 baino beranduago	1	% 1,70
Ez dago jasoa onartu denik	8	% 13,56

Kontu Orokorraren eduki formalak

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

HUTSAK	ERAKUNDE KOPURUA 2015
Ez dago balantzerik	3
Ez dago emaitzen konturik	3
Ez dago finantzaketa tauralarik	7
Ez dago oroitidazkirik	7
Ez da zorrari buruzko informaziorik jaso	3
Ez da Diruzaintza kontua jaso	4

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AURREKONTUKO AKATSAK	ERAKUNDE KOPURUA 2015
Ez dira kalkulatzen ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak.....	5
Oker kalkulatutako diruzaintza geldikina.....	2
Ez da kalkulatzen Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako.....	3
ONDAREKO AKATSAK:	
Balantzeak edo Emaitzen Kontuak ez dute amortizazioa jasotzen.....	15
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin	3
Zalantzazko kobragarritasuneko zuzkidura, balantzean jaso gabea.....	1



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

13/12/31n Gastu orokorretarako geldikin negatiboak zituzten udalaz gaindiko 4 entitateetatik 3k ez dituzte 15/12/31n finantzatu, lurralde historiko bakoitzeko Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauaren 49.4 artikulua urratuz.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK

III.1 UDAL ADIERAZLEAK 15/12/31-N

Udal adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 250 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>



III.1.1 FINANTZA ADIERAZLEAK

Berehalako likidezia eta epe laburreko kaudimena eta likidezia

Ratio hauek erakusten dute udalek kitatzeko dituzten ordainketei aurre egiteko duten gaitasuna. Biztanleria geruzaren araberako batez besteko baloreak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOPURUA	BEREHALAKO LIKIDEZIA	LIKIDEZIA	KAUDIMENA EPE LAB.
ARABA				
>50.000	1	% 17,14	% 14,17	% 119,43
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 458,18	% 359,21	% 816,67
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	% 194,34	% 151,74	% 375,88
<1.001	29	% 430,20	% 388,56	% 576,89
ARABA BATEZ BESTE	51	% 59,71	% 49,13	% 179,66
BIZKAIA				
>50.000	3	% 243,18	% 83,27	% 347,31
20.001-50.000	8	% 205,41	% 178,28	% 342,48
10.001-20.000	9	% 238,79	% 202,71	% 376,77
5.001-10.000	13	% 295,50	% 223,67	% 506,88
1.001-5.000	40	% 245,92	% 191,01	% 514,93
<1.001	39	% 268,07	% 231,99	% 343,12
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	% 238,04	% 138,53	% 378,37
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 91,06	% 66,71	% 280,21
20.001-50.000	4	% 125,35	% 44,22	% 343,01
10.001-20.000	13	% 285,37	% 227,68	% 489,47
5.001-10.000	15	% 159,89	% 124,12	% 356,28
1.001-5.000	22	% 180,15	% 141,44	% 293,28
<1.001	31	% 278,53	% 209,38	% 585,77
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 163,46	% 117,44	% 358,46
EAE				
>50.000	6	% 114,73	% 54,63	% 237,91
20.001-50.000	12	% 184,43	% 138,50	% 342,62
10.001-20.000	24	% 282,25	% 229,57	% 475,25
5.001-10.000	28	% 219,43	% 167,55	% 422,40
1.001-5.000	81	% 218,32	% 170,20	% 430,56
<1.001	99	% 312,75	% 265,16	% 455,18
EAE BATEZ BESTE	250	% 169,66	% 110,95	% 321,70



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zorpetzea

Udalen arteko datuak berdintzearren, udalerriek 15/12/31n baliatutako zorra soilik hartu da gogoan. Hona hemen biztanleko eta biztanleria geruzako erabilitako zorraren batez besteko kopuruak:

GERUZA	UDAL KOPURUA	BIZTANLEKO ZORPETZEA	ZORPETZEA SARR. ARR.arab.	ZORRA AMORTIZ. GUTXIENEKO EPEA(*)
ARABA				
>50.000	1	413	% 29,60	3
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	26	% 1,95	-
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	297	% 24,17	1
<1.001	29	145	% 12,43	1
ARABA BATEZ BESTE	51	354	% 26,08	2
BIZKAIA				
>50.000	3	51	% 3,94	-
20.001-50.000	8	114	% 10,69	1
10.001-20.000	9	142	% 13,03	1
5.001-10.000	13	147	% 12,94	1
1.001-5.000	40	219	% 17,29	1
<1.001	39	166	% 11,46	-
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	101	% 8,41	1
GIPUZKOA				
>50.000	2	505	% 37,06	2
20.001-50.000	4	301	% 24,33	1
10.001-20.000	13	241	% 18,52	1
5.001-10.000	15	297	% 23,68	1
1.001-5.000	22	337	% 28,76	1
<1.001	31	333	% 21,70	1
GIPUZKOA BATEZ B.	87	358	% 27,50	1
EAE				
>50.000	6	248	% 18,64	1
20.001-50.000	12	168	% 15,05	1
10.001-20.000	24	186	% 15,24	1
5.001-10.000	28	224	% 18,74	1
1.001-5.000	81	266	% 21,59	1
<1.001	99	206	% 14,77	1
EAE BATEZ BESTE	250	223	% 17,70	1

(*) Ekitaldi kopurua

EAEren batez besteko erabilitako zorra biztanleko 223 eurorena da. 21 udal daude 2015/12/31n batez bestekoaren zorra baino nabarmen handiagoa dutenak (673 eta 2.658 euro bitartean biztanleko).



90 udalek ez dute erabilitako zorpetzerik 15/12/31n eta horietatik 45, 1.000 biztanletik beherako biztanleria geruzan daude.

Zorra itzultzeko gutxieneko epeak adierazten du zorra zenbat ekitalditan amortizatu daitekeen, egungo sarrera eta gastu arrunten mailarekin. Ratio honen banako azterketan, 19 udaletan zorra itzultzeko gutxieneko epea 3 urtetik gorakoa da (itzulketarako batez besteko epea) eta horietatik 4tan itzultzeko epea 5 urtetik gorakoa da. Hiru udalek 2015ean emaitza arrunt negatiboa izan dute.

EAEko udalen batez besteko zorpetzea honakoa da:

GERUZA	UDAL KOPUR.	Euroak milakotan	
		2015/12/31-N ERABILITAKO	ZORPETZEA
ARABA			
>50.000	1	100.675	
20.001-50.000	-	-	
10.001-20.000	2	729	
5.001-10.000	-	-	
1.001-5.000	19	11.318	
<1.001	29	1.901	
ARABA GUZTIRA	51	114.623	
BIZKAIA			
>50.000	3	26.604	
20.001-50.000	8	31.532	
10.001-20.000	9	19.047	
5.001-10.000	13	14.355	
1.001-5.000	40	21.230	
<1.001	39	3.367	
BIZKAIA GUZTIRA	112	116.135	
GIPUZKOA			
>50.000	2	125.018	
20.001-50.000	4	33.680	
10.001-20.000	13	46.401	
5.001-10.000	15	30.872	
1.001-5.000	22	16.320	
<1.001	31	4.168	
GIPUZKOA GUZTIRA	87	256.459	
EAE			
>50.000	6	252.297	
20.001-50.000	12	65.212	
10.001-20.000	24	66.177	
5.001-10.000	28	45.227	
1.001-5.000	81	48.868	
<1.001	99	9.436	
EAE GUZTIRA	250	487.217	



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EAeko Udalek foru aldundieie itunpeko zergetan udal partaidetzagatiko likidazio negatiboen kontzeptuan guztira 112 milioi euro dituzte itzultzeko, eta horietatik 36 milioi euro Arabako udalerriei dagozkie eta 76 milioi euro, Bizkaikoei.

Diru-sarrera errepikarien eta egiturazko gastuen bilakaera

GERUZA	UDAL KOPURUA	SARR.ERREPİKARIEN BILAKAERA	EGITURAZKO GASTUEN BILAKAERA
ARABA			
>50.000.....	1	% 13,54	(% 0,08)
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 14,98	% 3,61
5.001-10.000.....	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 19,21	% 19,21
<1.001.....	29	% 6,78	(% 2,23)
ARABA BATEZ BESTE	51	% 12,42	% 0,09
BIZKAIA			
>50.000.....	3	(% 0,83)	% 2,12
20.001-50.000.....	8	% 5,20	% 12,22
10.001-20.000.....	9	% 2,29	% 4,14
5.001-10.000.....	13	% 4,26	% 4,43
1.001-5.000.....	40	% 0,47	% 4,12
<1.001.....	39	% 1,95	% 3,25
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	% 1,28	% 4,84
GIPUZKOA			
>50.000.....	2	% 1,14	% 1,12
20.001-50.000.....	4	% 5,64	% 0,52
10.001-20.000.....	13	% 2,87	% 2,07
5.001-10.000.....	15	% 5,28	% 2,12
1.001-5.000.....	22	% 7,08	(% 1,18)
<1.001.....	31	(% 3,47)	(% 1,37)
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 3,07	% 1,22
EAE			
>50.000.....	6	% 3,13	% 1,29
20.001-50.000.....	12	% 5,34	% 8,44
10.001-20.000.....	24	% 3,67	% 2,93
5.001-10.000.....	28	% 4,83	% 3,15
1.001-5.000.....	81	% 2,85	% 1,78
<1.001.....	99	% 1,34	% 0,49
EAE BATEZ BESTE	250	% 3,63	% 2,82



III.1.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

III.1.2.1 Sarreren aurrekontukoak

GERUZA	UDAL KOP.	SARR.AURREK. EGIKAR.	GAUZAT. KOBRAN.	KOBRANT. B-BEST.EPEA (*)	AUTONOMIA FISKALA	DIRU-LAG. eta TRANSF. ARR. MENP.
ARABA						
>50.000	1	% 97,70	% 84,90	76	% 43,37	% 49,78
20.001-50.000	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 91,96	% 88,25	86	% 41,02	% 54,36
5.001-10.000	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000	19	% 87,15	% 87,00	43	% 45,37	% 46,34
<1.001	29	% 87,26	% 88,67	27	% 47,64	% 39,26
ARABA BATEZ BESTE	51	% 95,46	% 85,57	71	% 43,55	% 49,48
BIZKAIA						
>50.000	3	% 89,69	% 95,27	45	% 36,03	% 62,84
20.001-50.000	8	% 87,11	% 95,23	30	% 38,67	% 59,25
10.001-20.000	9	% 90,36	% 94,65	29	% 38,13	% 60,18
5.001-10.000	13	% 81,43	% 93,20	39	% 37,18	% 58,01
1.001-5.000	40	% 83,81	% 93,86	25	% 37,61	% 56,94
<1.001	39	% 92,44	% 93,11	13	% 24,01	% 68,35
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	% 87,95	% 94,84	37	% 36,78	% 61,03
GIPUZKOA						
>50.000	2	% 91,43	% 88,23	41	% 42,41	% 50,40
20.001-50.000	4	% 90,10	% 88,54	54	% 42,54	% 53,19
10.001-20.000	13	% 91,29	% 91,34	40	% 43,64	% 52,15
5.001-10.000	15	% 92,58	% 91,29	37	% 43,25	% 53,67
1.001-5.000	22	% 87,71	% 92,76	27	% 38,01	% 57,69
<1.001	31	% 89,43	% 86,24	17	% 33,76	% 54,40
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 91,07	% 89,73	41	% 42,39	% 52,27
EAE						
>50.000	6	% 92,07	% 90,76	52	% 39,59	% 56,46
20.001-50.000	12	% 88,07	% 93,04	38	% 39,94	% 57,28
10.001-20.000	24	% 91,04	% 92,16	41	% 41,59	% 55,07
5.001-10.000	28	% 87,07	% 92,17	38	% 40,44	% 55,64
1.001-5.000	81	% 85,46	% 92,12	30	% 39,37	% 54,94
<1.001	99	% 90,19	% 89,88	19	% 32,78	% 57,18
EAE BATEZ BESTE	250	% 90,18	% 91,55	44	% 39,84	% 56,17

(*) Egun kopurua

Autonomia fiskalak zerga zuzen, zehar zerga, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan aitortutako eskubideen zenbatekoa jasotzen du, sarrera guztien artean zati-banatua. Adierazle hau udalerriaren gaitasun fiskalaren, ordenantzetan jasotako tarifen eta kudeaketaren eraginkortasunaren araberakoa da.



III.1.2.2 Gastuen aurrekontukoak

GERUZA	UDAL KOP.	GASTUEN AURR. EGIKARITZA	EGINDAKO ORDAINKETAK	ORDAINK. B-BEST. EPEA (*)
ARABA				
>50.000	1	% 95,99	% 90,94	62
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 84,73	% 93,80	32
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	% 83,65	% 89,33	47
<1.001	29	% 80,51	% 92,02	40
ARABA BATEZ BESTE	51	% 92,84	% 91,04	56
BIZKAIA				
>50.000	3	% 86,56	% 93,10	54
20.001-50.000	8	% 85,76	% 92,24	47
10.001-20.000	9	% 88,25	% 92,27	42
5.001-10.000	13	% 80,88	% 93,39	37
1.001-5.000	40	% 80,69	% 92,48	42
<1.001	39	% 88,97	% 91,04	46
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	% 85,54	% 92,75	48
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 83,50	% 89,88	68
20.001-50.000	4	% 84,39	% 93,69	45
10.001-20.000	13	% 83,40	% 91,14	54
5.001-10.000	15	% 88,61	% 92,04	45
1.001-5.000	22	% 88,55	% 92,66	40
<1.001	31	% 81,49	% 94,02	33
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 84,55	% 91,34	54
EAE				
>50.000	6	% 88,00	% 91,71	59
20.001-50.000	12	% 85,32	% 92,70	47
10.001-20.000	24	% 85,13	% 91,76	48
5.001-10.000	28	% 84,81	% 92,67	41
1.001-5.000	81	% 83,23	% 91,86	43
<1.001	99	% 84,44	% 92,20	41
EAE BATEZ BESTE	250	% 86,32	% 91,99	51

(*) Egun kopurua



GERUZA	UDAL KOPURUA	BIZTANLEKO GASTUA	GTU.PERTSON. INDIZEA	BIZTANLEKO INBERTSIOA	Euroak/biztanleko	
					INBERTSIO	EKITALDIKO FINANT. ZAMA
ARABA						
>50.000	1	1.464	% 40,85	145	% 9,89	% 5,18
20.001-50.000	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	1.324	% 43,46	184	% 13,92	% 0,98
5.001-10.000	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000	19	1.324	% 23,95	300	% 22,64	% 6,71
<1.001	29	1.281	% 26,30	327	% 25,55	% 2,94
ARABA BATEZ BESTE	51	1.428	% 38,77	174	% 12,18	% 4,91
BIZKAIA						
>50.000	3	1.252	% 30,27	135	% 10,82	% 1,21
20.001-50.000	8	1.088	% 34,67	78	% 7,17	% 3,28
10.001-20.000	9	1.100	% 31,36	118	% 10,69	% 2,00
5.001-10.000	13	1.182	% 30,15	162	% 13,72	% 3,00
1.001-5.000	40	1.299	% 25,20	221	% 16,99	% 4,31
<1.001	39	1.543	% 29,90	381	% 24,69	% 3,39
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	1.198	% 30,86	133	% 11,13	% 2,20
GIPUZKOA						
>50.000	2	1.405	% 28,13	189	% 13,48	% 5,64
20.001-50.000	4	1.255	% 33,79	177	% 14,07	% 6,23
10.001-20.000	13	1.259	% 30,08	162	% 12,84	% 3,70
5.001-10.000	15	1.258	% 28,09	181	% 14,38	% 3,95
1.001-5.000	22	1.276	% 29,54	261	% 20,48	% 6,45
<1.001	31	1.728	% 27,75	565	% 32,73	% 6,84
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	1.318	% 29,57	190	% 14,43	% 5,04
EAE						
>50.000	6	1.340	% 32,40	151	% 11,25	% 3,31
20.001-50.000	12	1.137	% 34,39	106	% 9,37	% 4,22
10.001-20.000	24	1.204	% 31,66	147	% 12,20	% 2,90
5.001-10.000	28	1.221	% 29,04	172	% 14,07	% 3,52
1.001-5.000	81	1.298	% 26,03	248	% 19,09	% 5,34
<1.001	99	1.519	% 28,39	416	% 27,39	% 4,32
EAE BATEZ BESTE	250	1.271	% 31,68	158	% 12,42	% 3,60

Ekitaldiko finantza zama ratioak interesak ordaintzeko eta zorra amortizatzeko erabili behar den sarrera arrunten ehunekoa adierazten du.



III.1.2.3 Aurrekontu emaitzaren eta diruzaintza geldikinaren adierazleak

Aurrezki gordinak finantzazkoak ez diren gastu arruntei behin aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den sarrera arrunten atala erakusten du.

Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du. Berezko baliabideekin inbertsioak finantzatzeko udalak duen gaitasuna erakusten du.

GERUZA	UDAL KOPURUA	BIZTANLEKO	BIZTANLEKO	Euroak/biztanleko
		AURREZKI GORD.	AURREZKI GARBIA	SUPERABITA/DEFIZITA
ARABA				
>50.000	1	148	75	17,05
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	183	170	167,83
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	290	208	145,94
<1.001	29	272	238	172,20
ARABA BATEZ BESTE	51	173	106	51,80
BIZKAIA				
>50.000	3	192	177	102,37
20.001-50.000	8	97	62	95,76
10.001-20.000	9	131	109	98,41
5.001-10.000	13	154	120	109,42
1.001-5.000	40	246	191	176,99
<1.001	39	337	288	176,91
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	166	140	108,53
GIPUZKOA				
>50.000	2	228	152	222,57
20.001-50.000	4	249	172	165,41
10.001-20.000	13	264	216	170,63
5.001-10.000	15	229	180	138,35
1.001-5.000	22	234	158	116,86
<1.001	31	480	375	402,40
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	246	181	183,48
EAE				
>50.000	6	190	146	111,18
20.001-50.000	12	141	94	115,86
10.001-20.000	24	207	172	143,12
5.001-10.000	28	193	151	124,33
1.001-5.000	81	252	186	154,65
<1.001	99	358	298	237,05
EAE BATEZ BESTE	250	193	148	124,68



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurrezki gordinak edozein modutara finantza zamaren pareko edo handiagoa izan behar du, izan ere, bestela udalak ezingo lioke zama honen ordainketari aurre egin eta ez luke inbertsioetarako auto-finantzaketarik izango. Honek guztiak esan nahi du 3 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak.

Aurrezki garbiak positiboa izan behar du, kapitalezkosarrerak ez daitezten gastu arruntak finantzatzeko erabil. Aztertutako ekitaldian, aurrezki gordin negatiboa erakusten duten 3 udalez gain 3 udaletan finantza zamak aurrezki gordina gainditzen du. Honek guztiak esan nahi du 6 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak. Aurrezki gordina negatiboa duten suposamendu horietan edota finantza zama hau baino handiagoa denetan zorpetzeko marjinarik batere ez dutela aintzat hartuta, 6 udal hauen autofinantzaketa tarako gaitasuna zerokoa da.



Aitortutako eskubide garbiei dagokienez, batez besteko indizeak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOPURUA	AURREZKI GORDIN. INDIZEA	AURREZKI GARB. INDIZEA	SARR.ARRUNTENG. GELDIKINA
ARABA				
>50.000	1	% 10,60	% 5,41	(% 0,07)
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 13,98	% 13,00	% 41,71
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	% 23,60	% 16,89	% 33,02
<1.001	29	% 23,30	% 20,36	% 62,15
ARABA BATEZ BESTE	51	% 12,71	% 7,80	% 9,17
BIZKAIA				
>50.000	3	% 14,93	% 13,72	% 19,05
20.001-50.000	8	% 9,10	% 5,82	% 20,25
10.001-20.000	9	% 12,01	% 10,00	% 19,39
5.001-10.000	13	% 13,60	% 10,60	% 31,10
1.001-5.000	40	% 19,40	% 15,10	% 41,40
<1.001	39	% 23,31	% 19,92	% 37,71
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	% 13,84	% 11,64	% 22,70
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 16,76	% 11,12	% 19,23
20.001-50.000	4	% 20,14	% 13,90	% 18,46
10.001-20.000	13	% 20,29	% 16,58	% 36,10
5.001-10.000	15	% 18,30	% 14,34	% 26,89
1.001-5.000	22	% 19,96	% 13,51	% 21,98
<1.001	31	% 31,28	% 24,45	% 51,48
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 18,92	% 13,87	% 25,55
EAE				
>50.000	6	% 14,30	% 10,98	% 14,29
20.001-50.000	12	% 12,62	% 8,40	% 19,68
10.001-20.000	24	% 16,96	% 14,06	% 30,96
5.001-10.000	28	% 16,14	% 12,62	% 28,83
1.001-5.000	81	% 20,41	% 15,07	% 34,80
<1.001	99	% 25,71	% 21,39	% 47,70
EAE BATEZ BESTE	250	% 15,38	% 11,78	% 21,50

Gastu Orokorrerako Diruzaintza Geldikinak aurreko ekitaldietan eskuratutako soberakinak erakusten ditu, datozen ekitaldietako aurrekontuen finantzaketa iturri izan daitezkeenak. Taulan jasotako ratioak Geldikin horrek sarrera arrunt guztien gainean duen pisua jasotzen du.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Udal batek Gastu Orokorrerako Diruzaintza Geldikin negatiboa du. Gastu Orokorrerako Diruzaintza Geldikin negatiboak erakusten du udalak bere ahalmenez gainetik gastatu duela, hurrengo ekitaldietan zuzendu beharko den defizita sortuz, indarreko aurrekontuaren arautegian ezarritakoari jarraikiz. Hona hemen udal honen biztanleria geruza eta Lurralde Historikoaren araberako sailkapena:

GERUZA	UDAL KOP.	GERUZAREN GUZT.GAI. %
<1.001	1	% 1,01
EAE GUZTIRA	1	% 0,40
GIPUZKOA.....	1	% 1,15



Ondoren zehaztuko dugu zein ehuneko egiten duen Aurrekontuaren emaitzak Gastu Orokretarako Diruzaintza Geldikinaren gainean eta Zordunekiko zalantzazko kobragarritasuna duten saldoetarako zuzkidurak egiten duena:

GERUZA	UDAL KOPURUA	AURREK. EKARPENA DIRUZA. GELDIKINARI	ZALANTZ. KOBR. ZORDUNEN INDIZEA
ARABA			
>50.000.....	1	% 182,49	% 15,06
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 30,56	% 39,05
5.001-10.000.....	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 35,82	% 35,10
<1.001.....	29	% 23,69	% 42,91
ARABA BATEZ BESTE	51	% 38,99	% 21,24
BIZKAIA			
>50.000.....	3	% 41,59	% 50,18
20.001-50.000.....	8	% 43,70	% 46,23
10.001-20.000.....	9	% 46,44	% 52,66
5.001-10.000.....	13	% 30,97	% 53,96
1.001-5.000.....	40	% 33,72	% 31,06
<1.001.....	39	% 32,42	% 25,97
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	% 39,67	% 45,73
GIPUZKOA			
>50.000.....	2	% 84,92	% 24,04
20.001-50.000.....	4	% 72,32	% 20,17
10.001-20.000.....	13	% 36,30	% 29,57
5.001-10.000.....	15	% 41,03	% 21,41
1.001-5.000.....	22	% 45,46	% 20,34
<1.001.....	31	% 50,92	% 2,63
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 55,18	% 23,88
EAE			
>50.000.....	6	% 57,56	% 28,83
20.001-50.000.....	12	% 52,21	% 36,83
10.001-20.000.....	24	% 37,77	% 36,46
5.001-10.000.....	28	% 36,04	% 36,29
1.001-5.000.....	81	% 35,99	% 30,63
<1.001.....	99	% 35,70	% 20,00
EAE BATEZ BESTE	250	% 45,83	% 32,16



III.1.2.4 Ekitaldi itxietako aurrekontuen adierazleak

GERUZA	UDAL KOP.	KOBRANTZAK EKITALDI ITXIAK	ORDAINKETAK EKITALDI ITXIAK
ARABA			
>50.000.....	1	% 61,37	% 99,96
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 38,74	% 89,36
5.001-10.000.....	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 57,96	% 87,34
<1.001.....	29	% 57,04	% 85,68
ARABA BATEZ BESTE	51	% 58,77	% 96,95
BIZKAIA			
>50.000.....	3	% 38,01	% 99,84
20.001-50.000.....	8	% 29,89	% 98,10
10.001-20.000.....	9	% 32,74	% 97,59
5.001-10.000.....	13	% 24,11	% 91,37
1.001-5.000.....	40	% 28,14	% 93,88
<1.001.....	39	% 56,41	% 89,21
BIZKAIA BATEZ BESTE	112	% 32,81	% 97,83
GIPUZKOA			
>50.000.....	2	% 53,99	% 99,88
20.001-50.000.....	4	% 66,42	% 99,28
10.001-20.000.....	13	% 51,94	% 99,64
5.001-10.000.....	15	% 55,05	% 95,60
1.001-5.000.....	22	% 72,87	% 95,60
<1.001.....	31	% 85,48	% 97,86
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 56,44	% 98,91
EAE			
>50.000.....	6	% 51,92	% 99,88
20.001-50.000.....	12	% 40,53	% 98,43
10.001-20.000.....	24	% 44,28	% 98,19
5.001-10.000.....	28	% 38,90	% 93,62
1.001-5.000.....	81	% 44,53	% 92,35
<1.001.....	99	% 62,82	% 90,08
EAE BATEZ BESTE	250	% 47,34	% 98,02



III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK 2015/12/31-N

Udalaz gaindiko adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 59 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira eta informazioa aztertu da. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

III.2.1 FINANTZA ADIERAZLEAK

Berehalako likidezia eta epe laburreko kaudimena eta likidezia

Hona hemen udalaz gaindiko entitateen batez besteko baloreak, jarduera motaren arabera:

JARDUERA	BEREHALAKO LIKIDEZIA	LIKIDEZIA	KAUDIMENA EPE LAB.
1. Ura eta saneamendua	% 459,31	% 245,64	% 581,37
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	% 20,02	% 19,93	% 133,46
3. Hiriko hondakin solidoa.....	% 75,61	% 73,46	% 245,84
4. Gizarte ongizatea.....	% 271,88	% 267,89	% 358,17
5. Arabako Kuadrilla	% 93,45	% 91,68	% 275,40
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 223,83	% 227,37	% 365,28
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 147,15	% 76,48	% 443,80
8. Suteak itzaltzea.....	% 104,53	% 104,53	% 244,46
9. Garraioak.....	% 202,93	% 44,57	% 250,41
EAE BATEZ BESTE	% 234,40	% 125,76	% 349,74

Zorpetzea

JARDUERA	ERABILITAKO ZORPETZEA	FINANTZA ZAMA	SARR.ARR.arab. ZORPETZEA	Euroak milakotan	
				ZORRA AMORT.	GUTXIENEKO EPEA (*)
1. Ura eta saneamendua	69.716	10.411	% 41,38	2	
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	370	121	% 1,07	1	
3. Hiriko hondakin solidoa.....	1.876	447	% 3,20	1	
4. Gizarte ongizatea.....	-	8	-	-	
5. Arabako Kuadrilla	-	2	-	-	
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	-	-	-	-	
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	-	-	-	-	
8. Suteak itzaltzea.....	-	-	-	-	
9. Garraioak	452.297	48.914	% 315,06	11	
EAE GUZTIRA	524.259	59.903	% 118,44	6	

(*) Ekitaldi kopurua

Zorpetzeari buruzko informazioa bihurritu egiten da garraio arloak duen berariazko pisua dela eta; alor hori Bizkaiko Garraio Partzuergoak osatzen du eta udal zorpetzearen % 86 egiten du. Lehenagoko txostenetan azaldutako moduan, erakunde honen bideragarritasuna Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak azpiegituretan egindako inbertsioen



finantzaketa sortutako finantza zamari aurre egin ahal izateko egiten dituzten ekarpenen baitakoa dela adierazi behar dugu. Bai erakunde honetan, bai Gipuzkoako Uren Partzuergoan zorra itzultzeko gutxienekeo epea 6 urtetik gorakoa da.

Edozein modutan, udalaz gaindiko entitateen finantza egitura ez da udalenaren antzekoa eta, beraz, finantza egoera kalifikatzeko erabilitako ratioak berberak izan arren, ondorioak eta, batez ere, neurri zuzentzaileak, ezin dira berdinak izan. Orokorrean, udalaz gaindiko erakundeek finantzaketaren zati handi bat lortzen dute berau eratzen duten udalek hala gastu arruntetarako, nola inbertsioetarako egiten dizkienek ekarpenen bidez. Hortaz, emaitza arrunt negatiboek adierazten dute entitatea osatzen duten udalen ekarpenak ez direla aski eta horrek zerikusia izan dezake emandako zerbitzuen tasa eta prezio publikoak kalkulatzean egin diren hutsekin edo zerbitzu horiek kudeatzean egin diren okerrekin.

Diru-sarrera errepikarien eta egiturazko gastuen bilakaera

JARDUERA	DIRU-SARRERA ERREPIKARIEN BILAKAERA	EGITURAZKO GASTUEN BILAKAERA
1. Ura eta saneamendua	(% 2,78)	(% 2,43)
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	(% 13,26)	% 0,28
3. Hiriko hondakin solidooak	(% 14,94)	(% 7,86)
4. Gizarte ongizatea	(% 7,31)	% 0,10
5. Arabako Kuadrilla	% 0,83	% 6,33
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 18,10	% 6,53
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 100,68	(% 25,97)
8. Suteak itzaltzea	(% 0,06)	% 4,62
9. Garraioak.....	(% 1,80)	% 0,64
EAE BATEZ BESTE	(% 5,02)	(% 1,68)



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

III.2.2.1 Gastuen aurrekontuaren adierazleak

Hona hemen aurrekontu gastuari buruzko adierazleak biztanleko eurotan emanak eta udalaz gaindiko erakundeek garatzen duten jardueraren arabera sailkatuak:

JARDUERA	GASTU AURREK.	ORDAINKETAK	ORDAINKETARAKO
	EGIKARITZA	EGITEA	BATEZ-B. EPEA (*)
1. Ura eta saneamendua	% 77,75	% 88,55	53
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	% 85,08	% 90,80	42
3. Hiriko hondakin solidoa	% 83,71	% 84,51	64
4. Gizarte ongizatea	% 92,37	% 92,72	49
5. Arabako Kuadrilla	% 93,34	% 91,61	38
6 Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.	% 94,96	% 98,18	39
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 54,17	% 80,86	96
8. Suteak itzaltzea	% 93,89	% 96,70	34
9. Garraioak.....	% 84,13	% 92,99	21
EAE BATEZ BESTE	% 82,04	% 90,04	44

(*) Egun kopurua

JARDUERA	GASTUA	GASTUA	LANGILE GAST.	Euroak milakotan	
	2014	2015	INDIZEA	INBERTSIOA	AHALEGINA
1. Ura eta saneamendua	191.158	196.064	% 19,85	61.961	% 31,60
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	44.301	39.374	% 23,28	5.093	% 12,94
3. Hiriko hondakin solidoa	67.074	60.053	% 7,93	2.519	% 4,19
4. Gizarte ongizatea	19.523	19.315	% 44,24	92	% 0,48
5. Arabako Kuadrilla	11.657	12.388	% 38,07	151	% 1,22
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.	2.591	2.749	% 92,14	8	% 0,29
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	518	559	% 52,78	308	% 55,08
8. Suteak itzaltzea	2.991	3.085	% 64,08	6	% 0,20
9. Garraioak	157.432	163.605	% 1,18	14.027	% 8,57
EAE GUZTIRA	497.245	497.192	% 14,81	84.165	% 16,93

2015eko ekitaldian zehar gastuak behera egin du udal zerbitzuak eta hiri hondakin solidoa kudeatzen dituzten erakundeetan. Lehenengo kasuan, funtzionamendu gastuak behera egin duelako eta hiri-hondakin solidoen jardueran inbertsioak behera egin duelako eta neurri txikiagoan funtzionamendu gastuek.

Alabaina, Bizkaiko Garraio Partzuergoak gastu handiagoa izan du inbertsioa ere handiagoa izan duelako.



III.2.2.2 Sarreren aurrekontuaren adierazleak

Hona hemen aurrekontu sarrerei buruzko adierazleak milako eurotan emanak eta udalaz gaindiko entitateek garatzen duten jardueraren arabera sailkatuak:

JARDUERA	SARR. AURREK. EGIKARITZA	KOBRANTZAK EGITEA	KOBRANTZARAKO BATEZ-B. EPEA (*)
1. Ura eta saneamendua	% 85,47	% 79,21	59
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	% 86,64	% 88,09	83
3. Hiriko hondakin solidoa	% 83,52	% 83,41	78
4. Gizarte ongizatea	% 92,10	% 91,76	31
5. Arabako Eskualdeak	% 93,75	% 75,04	43
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 92,36	% 91,21	1
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 82,44	% 51,30	54
8. Suteak itzaltzea	% 95,22	% 92,77	61
9. Garraioak.....	% 85,37	% 96,98	21
EAE BATEZ BESTE	% 85,79	% 86,51	48

(*) Egun kopurua


JARDUERA	Euroak milakotan				
	SARRERAK 2014	SARRERAK 2015	JARDUERAREN SARRERAK	DIRU-LAG. SARRERAK	ZORPETZE SARRERAK
1. Ura eta saneamendua	220.202	215.576	162.480	51.537	-
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	43.556	40.096	5.968	29.245	-
3. Hiriko hondakin solidoa	67.345	60.003	15.300	42.718	398
4. Gizarte ongizatea	20.063	19.212	3.406	15.692	-
5. Arabako Kuadrilla	12.313	12.495	1.207	11.250	-
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest	2.580	2.673	354	2.280	-
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	598	852	251	595	-
8. Suteak itzaltzea	3.072	3.129	10	3.119	-
9. Garraioak.....	164.907	166.013	88.476	70.970	6.500
EAE GUZTIRA	534.636	520.049	277.452	227.406	6.898

Orokorrean, 2015eko diru-sarrera % 2,73 gutxitu da aurreko ekitaldikoaren aldean, batik bat udal zerbitzuen eta hiri hondakin solidoen kudeaketara emanak dauden entitateetan.



Udalaz gaindiko entitateen sarreren egitura, jardueraren arabera sailkatua, honako grafikoan islatzen da:

UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN FINANTZAKETA



Udalaz gaindiko entitateen % 37k euren aurrekontuaren % 80 baino gehiago berau osatzen duten udaletatik edota bestelako erakundeetatik jasotako diru-laguntza arruntetatik datozen sarreren bidez finantzatzen dute.

Uraren hornidura eta saneamendura emanak dauden entitateek euren aurrekontuaren atalik handiena jarduerak berak eragindako sarrerek finantzatzen dute.

III.2.2.3 Aurrekontu emaitzaren eta diruzaintza geldikinaren adierazleak

JARDUERA	AURREZKI GORDINA	AURREZKI GARBIA	Euroak milakotan SUPERABITA/ DEFIZITA BIZT.
1. Ura eta saneamendua.....	46.869	36.458	13,80
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	597	476	8,04
3. Hiriko hondakin solidoa.....	2.561	2.114	1,43
4. Gizarte ongizatea.....	(46)	(54)	1,74
5. Arabako Kuadrilla	129	127	3,46
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.	(76)	(76)	0,17
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	78	78	0,28
8. Suteak itzaltzea.....	44	44	2,85
9. Garraioak.....	52.696	3.782	10,62
EAE GUZTIRA	102.852	42.949	7,61



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

JARDUERA	AURREZKI GORD. INDIZEA	AURR. GARB. INDIZEA	SARRERA ARR. GELDIKINA	AURR.ak DGRI. EKARPENA	ZALANTZ. KOBRAK. ZORDUNEN INDIZ
1. Ura eta saneamendua.....	% 27,82	% 21,64	% 88,42	% 17,50	% 21,37
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	% 1,73	% 1,38	% 18,27	% 48,02	% 3,29
3. Hiriko hondakin solidoak.....	% 4,37	% 3,61	% 20,57	% 18,37	% 13,47
4. Gizarte ongizatea.....	(% 0,24)	(% 0,28)	% 27,96	% 8,11	% 0,60
5. Arabako Kuadrilla	% 1,04	% 1,03	% 17,01	% 13,14	% 5,86
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.	(% 2,89)	(% 2,89)	% 17,31	% 10,31	% 16,12
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 23,86	% 23,85	% 28,39	% 19,19	% 0,70
8. Suteak itzaltzea.....	% 1,40	% 1,40	% 8,41	% 65,48	% 1,29
9. Garraioak.....	% 36,71	% 2,63	% 12,16	% 45,77	% 0,00
EAE BATEZ BESTE	% 23,24	% 9,70	% 43,61	% 20,85	% 12,45

III.2.2.4 Ekitaldi itxietako aurrekontuen adierazleak

JARDUERA	EKITALDI ITXIETAKO KOBRAINTZAK	EKITALDI ITXIETAKO ORDAINKETAK
1. Ura eta saneamendua	% 92,27	% 97,56
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	% 76,66	% 95,35
3. Hiriko hondakin solidoak	% 80,37	% 99,97
4. Gizarte ongizatea	% 88,49	% 97,37
5. Arabako Kuadrilla	% 87,73	% 85,51
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 82,08	% 94,05
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 97,09	% 99,40
8. Suteak itzaltzea	% 80,88	% 100,00
9. Garraioak.....	% 100,00	% 100,00
EAE BATEZ BESTE	% 90,19	% 98,16





ERANSKINAK

A.1 KONTUAK AUDITATUAK DITUZTEN ERAKUNDEAK

Hona hemen kanko kontrola izan duten erakundeak:

UDALA	LH	HERRIA
HKEEren kontrola		
Barakaldo	BIZKAIA	100.228
Donostia.....	GIPUZKOA	186.095
Durango	BIZKAIA	28.899
Elgoibar	GIPUZKOA	11.589
Karrantza Harana.....	BIZKAIA	2.749
Guardia (*)	ARABA	1.520
Mungia.....	BIZKAIA	17.131
Kanpoko auditoreen kontrola		
Amoroto.....	BIZKAIA	410
Andoain	GIPUZKOA	14.668
Arrasate.....	GIPUZKOA	22.055
Astigarraga.....	GIPUZKOA	5.688
Azkoitia	GIPUZKOA	11.566
Basauri	BIZKAIA	41.304
Bergara.....	GIPUZKOA	14.780
Eibar	GIPUZKOA	27.414
Errenteria.....	GIPUZKOA	39.276
